

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Gure produktuaren banaketari dagokionez gure fabrikatik gurpil-hornitzaileei, konzesionarioei, denda desberdinei... furgoneta bidez bidaliko dizkiegu, gure enpresak edukiko duen furgoneta zehatz batzuei esker. Furgoneta hauek gure markaren izena, logo, web-orriaren izena... bezelako informazioa eramango dute, bidean gure marka ahalik eta jende gehienara helarazteko.



Komunikazioetan aldiz, gure marka eta produktua ahalik eta jende gehienari helarazteko interneta eta sare sozialak erabiliko ditugu. Hauek erabiltzearen arrazoiak dira gaur egun hauen erabilera oso hedatua eta normalizatuta dagoela, eta jende asko egoten da hauek erabiltzen eguneko ordu askoetan. Horregatik pentsatzen dugu iragarkiak sare sozialetan eta web-orrietan jartzea eta lehenengo horietan influencerrei ordaintzea gure produktua gomendatzeagatik oso ideia ona dela.

Beste modu bat gure produktua helarazteko izan liteke automobil karrera munduan baneratzeta. Hala nola talde desberdinei patrozinatzen haiek haien kotxeetan gure marka eramateko, zirkuituko karteletan gure iragarkiak jartzea bertako jendeak eta telebistatik karrera ikusten dutenek ikusi dezaten...

